

# Etxeberri Sarakoaren “Escual-herrico gazteriari” eta kultura klasikoaren transmisioaz

PATXI SALABERRI MUÑOIA\*

“[...] obligatuac gara errecibitcen dugun gauçaren aithortcera,  
edo bertcela da eçagutça gabeco marcca”

Etxeberri Sarakoa

**1** Ez da kultura klasikoaren transmisioarena Euskal Literaturan larregi landu den gaia eta, metodologiaren ikuspuntutik ere, egia da ez direla asko eraikitze-lan mota horri ekiteko aurki daitezkeen zutabeak.

Dena den, ez lirudike arrazoiaren aurkako Euskal Literaturan antzinateko autore klasikoaren transmisioa ikertzean, lehendabizi euskarazko testuak errebisatzen hasteak, transmisioaz mintzatzeko ez baita nahikoa euskaraz idatzirik agertzen den materiala, atalka eta jauzika bezala, eta testuen arteko filiazio loturarik bilatzen saiatu ere gabe aritzea. Nahiz eta, diogun bidenabar, ez den erabat derrigorrezkoa ere inork behiala aipatzen zuen “ehizaritza filologikoaren” lakio itsaskorretan erortzea gauzak ongixko bideratu ahal izateko.

Pentsatzekoa da nolabaiteko segida kronologikoa eta kulturala duten testuak berrikusi eta aztertzeak argi gehiago eman dezakeela edonoren hausnarketak eta usteak baino; besteak beste, testuen arteko dependentzia erlazioak agerian utz ditzakeelako. Eta erlazio horiek -daudenean, jakina!- aski garbi erakuts dezaketelako noraino den berri aztertu autoreek proposatzen dutena, noraino den interesgarri planteatzen dutena eta noraino diren garrantzitsu klasikoaren sozializazioan, bulgarizazioan edota hedapen hutsean.

\*Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV.

2. XX. mendera bitarteko Euskal Literaturan nabarmendu diren idazleen artean latinak garrantzi handia izan badu ere (gehienek ikaste-hizkuntza izan baitzen), halere ez da ohikoegia gertatu grekera edo latina zerabilten autore klasikoekiko harreman zuzena, ez behintzat tradizio kristauaren mugetatik landa gera zitezkeenekikoa edota historia eta oratoriaren arlokoak ez zirenekikoa. Maiz asko gainera, gaztaroko ikasketetako bernizdura klasikoari esker jasotakoak edota bigarren eskukoak (besteren testu, esaldi-bilduma, *silva...* bidezkoak) baino ez dira izan euskal autoreek islatu dituzten antzinateko erreferentziak.

Latinez idatzitako literaturari dagokionez, esaterako, frogatu eta sendeteko legoke oraindik zenbateraino ezagutzen zituzten gure autoreek sarritan aipatutako Juvenalen satirak, Plautoren komediak, Horacioren poesia edota Lucrecio beraren lanak. Eta berariaz utziko genituzke ezagutzen omen ziren klasikoen zerrenda horretatik at -arrazoirik eman behar ote litzateke?- Ovidioren “arteak” eta “erremedioak” eta Catulo bezalako neoterikoen idazlanak.

Argi-gabezia hori da, hain zuzen, kultura klasikoaren transmisioaz jardutean itzal franko sortarazten dituen lehen faktorea, izan ere, gure autoreek behin eta berriz errepikatutako erreferentziak -gehienetan ezagunegiak- erre-frauen gisara erabiltzeko topiko hutsak izan baitaitezke eta ez klasikoen zinezko ezagutzatik isuritako harribitxiak.

Ez legoke, beraz, sobran esparru honetara zalantzak uxatzera etor litekeen ekarpen bat bera ere.

3. Ildo horretan, interesgarria bezain adierazgarria gerta daiteke lapurte-razko literatur tradizioaren eta gipuzkerazkoaren sorreraren arteko uztardura sinbolizatzen duen Etxeberri Sarakoaren testigantza ere, batik bat haren *Es-kuararen hatsapenak* eskuizkribuaren atala den “Escual-herrico gazteriar” izenekoaren talaatik eskainia bada<sup>1</sup>.

Eta ohi ez bezala bada ere, bidezko lirudike Etxeberriren gutun gisako horri isurtzen zaion aipamen-zaletasunean eta erabileran arreta berezia jartzeak. Izan ere, sarri askotan saratarraren *aemulatio*-tzat hartzen denaren garrantzia uste baino haratago doa, ia erabateko morrontza eta dependentzia baita gure medikuak arlo horretan azaleratzen duena.

Ikuspuntu horrek, esan gabe doa, berebiziko pisua har lezake klasikoen transmisioa tesitatzat agertu nahi lukeen edozein ikerlanetan, eta are pisu handiago, baldin tesi horren adibidetzat Etxeberri Sarakoaren honako testu hau jasoko balitz eta ez, esaterako, 1718an argitaratua izan zen “Lau-Urdiri Gomendiozco carta edo guthuna” delakoa.

Zeren eta, aztarna guztien arabera, “Escual-herrico gazteriar” izeneko testuan Etxeberri Sarakoak klasikoekin duen lotura ia bakarra Axularren *Gerro*-ren bidezkoa da, Axularren arartekotasunaren bidezkoa esan nahi baita. Ondoko eranskinean ikus daitekeenez, Sarako erretoreak liburuan eman bezala jasotzen ditu medikuak autore klasikoen aipu gehienak eta dagozkien euskarazko bertsiok bere *diskurtsoan*.

<sup>1</sup> Xede hori bera erakutsi dute I. Villosladak eta E. Torregarik “Joannes Etxeberriren *Euskal Gazteriar diskurtsoa*-ren analisisa: kultura klasikoaren transmisioa Euskal Herrian” artikuluan (*ASJU*, XXIV-2, 2000, 423-442).

Ez legoke, beraz, emulaziorik; ez legoke urdazubiarraren *eragimik*. Axularren hitzak berak dira Etxeberrik darabiltzanak. Hori bai, inoizka testuari forma berria emanez eta urak iturburua zein den jakiteko lorratz gehiegirik erakutsi gabe eskainiz.

4. *Excursustzat* hartuko ez balitzaigu, atseginez ekarriko genuke harira horrela jositako testuak apailatzeko teknikaren adibidea, fitxa-sistemarena alegia.

Ezaguna da *fitxaren* aitatasuna Stendhali bizkarreratzen zaiola, bera izan bide baitzen oharrak, notak eta bestelako informazioak gordetzeko paperezko tresnatxo hori asmatu eta erabili zuen lehena. Horrela -eta inork ez omen daki ongiegi literatur lana areagotzeko borondate zintzoz egin ote zuen ala besteren originalen aztarnak bere lanetan nabarmenegiak gerta ez zitezkeen-, kontatu ohi da irakurritako idazlanen laburpena erredaktatu ondoren, iritzi propioekin aberasten joateko orri zuriak tartekatzen zituela besteren pasarteak zein ideiak, hitzez hitz, jasotzeko zerabiltzan orrialdeen artean.

Izan ere, J. Prévost historialariak zioen bezala, hori eta horretarako baino ez dira fitxak, hots, testuak lerro gutxiko zatitan hausteko tresnak, data, gertakari edo aipamen bakarreko zatitxotan haustekoak, gero, iturri ezberdinetako urak bailiren, hobe nahas daitezten eta kolore berriez agertzeko ahalmena eskain diezaioten testu berriari. Jakina, talentu gehiegirik izan gabe ere, guztiz pertsonalak eta original itxurakoak izan daitezke horrela sortutako idazlan berriak.

Garbi da, beraz, fitxaren erdua dela biderik errazena gure errotakoa ez den irinarekin beste ogi bat, iduriz etxeoagoa, egiteko.

Baina Stendhalez geroztik guztiz hedatua izan bada ere fitxa-sistemaren bidezko lan metodologia hori (egungo egunean informatikak berak ere askotxo lagundu du horrelako produkzio originalen erditze-uneetan), ez bide da zalantzarik igali berdintsuak ematen zituzten sistemak erabili ohi zirela tradizio klasikoan hazitako predikari eta idazleen artean ere, karpeta bete apunte-orri izan tresnok zein fitxa izatera iristen ez zirenen tarjeta-zatiak edo *in margine* idatzitako eranskin gisakoak izan bitartekook.

Damurik, teknika horiezaz egin den erabilera “anitza” dela eta, ugari izan dira halaber beraietatik sortutako susmoak eta, behialako predikariek ziokeen bezala, pentsamendu txarrak; eta, sarritan, definitu ere kalifikatibo deskalifikatzaileen bitartez definitu eta adjektibatu izan dira “teknologia” horietan oinarrituriko lan-moldeak, txarrenetako bat *plagio* hitzaren bidez adierazi izan delarik eta -bekaturik mortalenak ere muturren bat goxo!- *intertestualitate*a suertatu delarik aldagai positiboena; positiboena eta -omen- intelektuala.

5. Gauzak horrela, eta digresio moduko honetatik geurera bueltatuz, guk behintzat ez genuke jakingo noraino den Etxeberriren honako testu hau plagioaren arloko narraskeria -gehiago edo gutxiago- barkagarria edota jankintsu arimazuriaren intertestualitate arloko ekarpen garden eta laudagarria.

Orobat, ez genekike noraino baieztatu litekeen “Etxeberriren diskurtsoa -honako hau, alegia- langai paregabea dela tradizio klasikoaren eragina euskal kulturaren eta pentsamenduan aztertzeko” (Villoslada eta Torregarai 2000, 425).

Eta, ezberrik gabe, zalantzaren bat ere izango genuke “Etxeberriren lanera hurbildu diren euskal ikerlari gehienak” direla eta, beheraxeago baieztatzen denarekin, hots, “ez dir[el]a urrutirago joan bere analisisetan, edo azalpen errazak bilatu dizkiote[la ospe handiko jakitunen aipamenen kontuari], Axularren eraginari egotziz, berez, garai askotako testu retorikoen ezaugarri komun bat dena” (*idem*, 432). Izan ere -eta honekin ez dugu bekataritzat hartu nahi hori egiten duen adabatzailera, arraz zilegizkoa baitu prozedura-, testuen arteko alderatzeak ezin ageriago utziko bailuke urdazubiarraren janzkeratik harturikoak izan direla testu berria ontzeko oihal zatiak.

6. Aitzitik, ziur dakigu gazteriarri zuzendutako berbaldiaren egilea den Etxeberriren meritua beste inon letzakeela, hots, testu aszetikoan eskainitako zenbait pasarte baliatzen jakitean sermoi kutsua ezin gal dezakeen diskurtso pedagogiko bat taxutzeko.

Gainerako guztia horren ondorioa baino ez litzateke. Hau da, halako diskurtso laiko batek eta zegokion tonuak berak berez eskatzen zuten *jentilen* presentzia oparagoa aipu erlijioso hutsena baino, nahiz eta, besterik ezean, horrelakoetara ere maiz joaten zitzaion eskua Etxeberriri.

Eta handia ala urria izan erabilpen hori, testu honek ez luke bestelako alderdi azpimarragarrikerik klasikoaren transmisioari dagokionez. Areago: gogoan hartzen bada Etxeberriren prestakuntza kulturala eta literarioa ez zela euskaldun gehienena bezalakoa izan, askoz ere landuagoa baizik, eta haren lanak berrehun urtez ez zuela inolako funtzionamendu sozioliterariorik izan (ez baitzen argitara eman), ondorioztatu beharko litzateke “klasikoaren -ustezko-transmisio” hori gehienik ere “klasikoaren errezepzioa” izan zela, medikuak berak egindako *harrera* alegia.

Hortaz, klasikoaren *transmisioaren* arazoari argirik ekarriko bazaio, eta hipotesi itxaropentsuagoak gezurtatzen ez diren bitartean, ez dirudi eredugarriena eta argi-emaileena Etxeberriren “Eskual Herriko Gazteriarri” izenekoak hain preseski.

7. Etxeberrik gazteei zuzendutako gutun horretan, §11tik §23ra bitartean garatzen dira latinezko aipu gehienak, gutunaren mamia bera azken txatlat horretan bukatzen delarik, Etxeberrik hurrengo atalaren hasieran bertan adierazten duen bezala (§24an, alegia): “Hauc nituen (Ene haur gazte bihotcecoac) çuei erraiteco nituen gauçac”. Ondoko atalak berbaldi-amaierako formalismo erretorikoari dagozkionak baino ez lirateke.

Bestalde, kopuruari begiratuta, aipatu atalok baino lehenago eta geroago dauden aipamenak testimonialtzat har litezke eskuarki: § 24an Katonena bata eta biblikoa bestea, eta §1-§10 bitartekoetan Godart-en hiru aipamen, Lampridio-ren erreferentzia bat eta pare bat aipamen gehiago, Kasiodorrena bata eta filosofia printzipioa bestea.

Gehienak, bada, §11tik §23ra bitartean biltzen dira.

8. Baina hitzak (h)aribira –Euskaltzaindiak lexikoa finkatu bitartean nori egin plagio ortografikoa? Etxepareri? besteri?–, hona hemen Etxeberriren testuari dagozkion §11tik §23ra bitarteko atalak. Bi zutabetan, elkarrekin alderatzeko gisa emandako testuetan, eskuinaldekoak Axularren *Gero* (1643:

1988ko faksimila) liburutik hartutakoak dira. Beste guztia Etxeberrirena da, *RIEV* 28an (1907) argitaratu bertsiotik jaso, hain zuzen (175-188 or.).

Kontuan har bedi antz gehien duten pasarteak baino ez direla hona ekarri, eta alboraturik geratu direla, ideia eta hitz berdintsuak izan arren, bestelako moldeetan emandakoak edota §11-§23 ataletatik at daudenak (Axularren liburuari –*Gero*, 621– eta Etxeberriren gutunari amaiera –188 or.– ematen dien “Jaincoac hala nahi duela” esaldia bezalakoak, alegia).

Testuok ikusi ondoren Etxeberriren pasartearen iturburuaz oraindik inork zalantzarik balu, beste adibide xume eta ezkutu bezain argigarri honi eratziki liezaioke begia: Axularrek alde aurretik ematen duen latinezko testuaren euskarazko itzulpena da gero Etxeberririk § 11. atalean, jatorrizko egilearen, euskaratzailearen edota latinezko bertsiorearen berririk bat ere eman gabe, parafraseatuko duena. Horrela, Axularrek Bedaren hitzak iturriztat aipatzen dituen bitartean (“*Pigri vocabulo denotatur, quod vult regnare cum Deo, et non laborare pro Deo: delectant proemia cum pollicentur, deterrent certamina cum iubentur*. Nahi du naguiac Jaincoaren erresuman parte...” *Gero*, 48 or.), Etxeberririk zuzenean ekiten dio Axularren euskarazko bertsiota garraiatzeari eta “Jaincoaren erresuman” delakoa “zientzian” hitzaz ordeztzen. Irudi luke Etxeberriren asmoa autore klasikoak zabaltzea izan balitz, erraz asko erabil zezakeela beste aipamen hau berau ere...

## ESCUAL HERRICO GAZTERIARI

[...]

## § 11

Ordea halarican-ere cein gutiac diren hunen ardiesteco entsejatu eta travaillatu nahi dutenac; batçuec guerocotz utzten dute, eta bertce batçuec bere fichotasunean fidatcen dira: ezta ez asqui izpirituz agudo içaitea, eta adimendu haltoa duçula ceure buruari prometatcea, baldin ceure partetic ongui ensejaturic estudioan emplegatcen ezbaçara; Estudioco travailluric gabe ikhasico duçula gogoan passatcea, da ennorantciaren goibeldurarequin arguia ez iccusi nahi içatea. Hargatic erran çuen Hesychie ennorantciac eguiten duela Guiçonaren adimenduan, Jondoni Pauloren beguietan hareztec edo ezcatec eguiten çutena, ceinec arguia trabaturic, bista khentcen baitcioleten, Ananiasec ukhituric error cequiozcon artean. *Et confestim ceciderunt ab oculis ejus tanquam squamae, et visum recepit.* Hysych. ap. Lang. tit. de ignor. Act. Apost. c. 9. Hargatic izpiritu, eta adimendu letragabecoac, alferqueriac garaituric ennorant guel-ditcen direnac, guisa berean deit ditezque begui ezcatatz betheac beçala, ceinac ez baitçazite erorico, ez arguiric ikhusten utcico, non eztituzten gantçutcen estudioaren travailluaz, ceren hunec choilqui khentcen baititu ennorantciaren goibeldurac, eta aguertcen cientciaren distiadurac, hau hunela eguiten eztuçue erranen dut, gogo, eta vorondate baduçuela estudiantceco eta ikhasteco; baina obratcea çaitçuela falta.

Halacoac gatic erraiten du Isaias Profetac: *Venerunt filii usque ad pertum, et virtus non est pariendi.* Isai. 37. Ethorri ciren erditceco puntadara, ordea etciren erdi, obratugabe guelditu ciren. Hauc ere hartcen dute gogo, eta vorondate estudiantceco eta ethortcen direnean, eguin behar duten orenera, guibelatcen dira, eta han anhu, eta ukho eguiten dute, beharrenean faltatcen dute: ceren hartcen duten gogo, eta vorondate hura ezbaita fina, ez cinezcoa, eta deliberatuqui deliberatua. Hauc nahi luquete cientcian parte, ez ordea cientciaren ardiesteco iragan behar diren travailluetan: pagamenduac alegueratcen tu, travailluac tristatcen, eta icitcen; travaillutic heldu den irabacia nahi luquete nequeric gabe goçatu: nahi dute ikhan jaquintsunen herroncara, ordea nekhatu gabe; ez atseguinic nahi dute utci, eta ez penaric hartu, herabe dute bideari lotcera. *Piger quasi aeger pedibus.* Isidor. lib. 2. ethim. Maingu dira, eta oinac dituzte eri, gogoa herbal, eta flaco; nahicunde franco badute, obratcea çaye choilqui falta: hau guerocotz utzten dute. Finean erain gabe, eta arbola loratu gabe nahi luquete fruitua bildu, halaco guisaz non erran baititeque hautaz: *Desideria occidunt pigrum.* Prover. 21. Nahicunde, eta desircunde choiletan urtcen direla.

Halacoac gatic erraiten du Isaias Prophe-tac: *Venerunt usque ad partum et virtus non est pariendi* (Isai. 37). Ethorri ciren erditceco pontura, ordea etciren erdi, etcen hartaracotçat indarric asqui. Hartcen dugu gogo, hartcen dugu vorondate, obra onac eguin behar ditugula: eta ethortcen gara eguin behar ditugun orenera, ordea han itxitcen eta guibelatcen gara, han anu eta ukho eguiten dugu, beharrenean faltatcen dugu. Ceren hartcen dugun gogo eta vorondate hura, ezpaita fina, ezpaita cinezcoa eta ez deliberatuqui deliberatua. (*Gero*, 46-47 or.).

Nahi du naguiac iaincoaren erresuman parte, ez ordea erresuma haren ardiesteco, iragan behar diren travailluetan. Pagamenduac alegueratcen du, travailluac tristatcen du eta icitcen. Ongui eguitetic heldu den irabacia, onguiric eguin gabe nahi luque goçatu. Nahi du ioan parabisura, ordea nekhatu gabe. Ez atseguinic nahi du utci, eta ez penaric hartu. Herabe du bideari lotcera. *Piger, quasi aever pedibus* (Isidor. lib. 2 Ethymo.). Maingu da, oiñac ditu eri, gogoa erbal eta flaco. Nahicunde badu eta badugu, nahia eta obratcea çaicu falta, hura gueroco egotzten dugu. (*Gero*, 48 or.).

*Desideria occidunt pigrum* (Prover. 2). (*Gero*, 49).

Nola nahicunde hutsetan eta desircunde choilletan iragaiten çaicun dembora (*Gero*, III. kapitulua: Izenburua).

§ 12

Ezta ordea hau choilqui heldu haur gaztetaric baina bai burasoetaric-ere, ceinec asco orduz eta guehienean ez baitiote uzten bere umei estudiantcera adin samurra dela causa: ceren iduritcen baitçaje estudioac bide gabe eguinen dioela hequien natura-leçari edo hazbideari, erraiten dutelari ecen, ongui haciric, eta indarrac harturic denborarequin, estudiaracico derauela, eta bitartean atseguin hartcera utci behar direla, eta hala utzten tuzte brida lachoric, erranac ez aditu iduri gorrarena eguinez, eta eguinac ez ikhusi iduri eguinez: eta hemendic guisa hunetan lotcen çaje aztura gaichtoaren erhasun languita bat, ceina hatsapenean, eta lehenbico abiaduran ezti, eta arin baita: *Error in principio levis, in fine gravisimus*. Baina guero ondoan akhabantçan haguiz pisu, eta garratz eguitera ethortcen da:

Sukhar hecticcaren contua du, lehenbician badirudi jostetaco gauça, jeusere eztela, ceren dissimulatcen, eta estaltcen baitu bere burua: baina guero ondoan eta guerorat ja gorpputcean nausitu denean, eta bere burua eçagutcera emaiten duenean, eguiac ezta erraz haren sendatcea, eta erremediatcea; cembatenaz-ere lehembician baitcen eçagutceco gaitçago, eta erremediatceco erraçago; hambatenaz guero guisa berean eguiten da eçagutceco erraçago, ordea sendatceco gaitçago: ceren orducotçat erroac, eta çainac eguin baitituzque, eta ordinariozqui eritasun harequin hiltcen ohi dira heticcoac, lehenbicitic erremediatceco erraz cen demboran eçagutu faltaz, eta dembora ceino erremedioac eman gabez.

Ceren nola baita Hetica daritçan eritasun bat, cein eguiten baita, succarra dembora luceaz, eta appurbana heçurretan barrena sartceaz: eta eritasun harc ezpaitu erremedioric, miracuilluz edo baicen, eta içaitecotz ere choil luçaro: hala da dembora luceaz, gogoan, eta bihotzean barrena sarturic dagoen aztura gaixtoa ere. Hura da Hetica gaixto sarthua, atheratcen eta erremediatcen gaitça. (*Gero*, 94-95 or.).

§ 13

Hau bera guerthatcen çaje hainitz burasori, erremedioa eman ahal deçaquetenean etçaje iduritcen, arriscuric badela; eta ikhusten dutenean arriscua dela eta bere umea galtcera dohatela, erremedioric ecin causi deçaquete: nahi dut, eguin deçaten eguin ahala, bitartean ordea berandu çaje; ceren haurreticaco haztura gaichtoa nausitu baita, eta eman baitu bere burua eçagutcera; halatan da beldur içaiteco nequez utcico dutela hartu duten plegua.

*Adolescens juxta viam suam, etiam cum senuerit, non recedet ab ea*. Proverb. 22. Spiritu Sainduac erraiten du, nor nola gobernatcen baita gaztean, hala comuntzqui eguiten ohi dela çahartcean-ere, orduan hartcen duen bidea, plegua, eta usantça eduquitcen du guerorat-ere, ezta handic higuiccen, ez aldaratcen, eta hari datcheco: halacotz çamaria-ere gazte deino, hezten da: haragua berri deino gacitcen: çuhaitça ttipi deino birlandatcen; Finean gauça guztiec lehenbician hartcen dute bere

Erraiten du Spiritu Sainduac: *Adolescens iuxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea* (Prove. 22). Nor nola gobernatcen baita gaztean, hala comuzqui eguiten ohi da, çahartcean ere. Orduan hartcen duen bidea, plegua, eta usantça, eduquitcen du guerorat ere: ezta handic higuiccen, ezta handic aldaratcen, hari itchetquitcen çaica. [...] (*Gero*, 86 or.). Çamaria gazte deiño hezten da. Haragua berri deiño, gacitcen da. Çuhaitça ttipi deiño birlandatcen da:

plegua, eta behin hartuz gueroz, beraus eta nequez uzten dute. *Quo semel est imbuta recens, servabit odorem testa diu.* Horat. epist. 2. Dio Horacioc, eltceac berrian hartcen duen ussaina edo cutsua eduquitcen duela.

Finean gauça guztiec lehenbician hartcen dute bere plegua eta ortkhoia, eta behin hartuz guero nequez utzten dute. [...] *Quo semel est imbuta recens, servabit odorem testa diu* (Orat. ep. 2). Eltceac luçaro eduquitcen du, berrian hartcen duen usaiña eta cutsua. Dio Oratioc. (*Gero*, 87 or.).

Hargatic da beraz Burasoen eguinbidea haurrac haurdanic haztura onetara guida-tcea; eta baldin ttipitodanic hazten balituzte behar den maneran, guero handitcen lirenean onhetsia luquete bertutearen haztura.

*Filij tibi sunt, erudi illos, et curva illos a pueritia eorum.* Eccles. 7. Salomonec erraiten du, semeac ditutçunean, escola çatçu haurretic, eduqui ttipi direino azpitic, eta beldurtasunean, ceren behin adinean aitcinatuz gueroz, eztitutçu errazquiago manucortuco, escuperaco, eta ez plegatuco.

*Filij tibi sunt, erudi illos, et curva illos a pueritia eorum,* dio Salomene (Eccles. 7). Semeac ditutçunean, escola itçatçu haurretic; uzcur itçatçu eduqui ttipi direino azpitic. Ceren behin handituz guero, eztitutçu hobequiago manucortuco, escuperaco, eta ez plegatuco. (*Gero*, 88 or.).

#### §14

Ordea abisu on eta miragarri hau hunela eguin gabez: cer guerthatcen da? haci, eta handitu direnean, atseguinetaric lekhora gaitz, eta buruz-gora çaje estudioaren nekhea, eta travaillua; nahiago dute ibili ohitu beçala jostetan, joccotan; eta handic arlotequerian, eta guero guelditcen dira alferqueriaren azturan gogortuac, eta jeuse-taco gai eztiren beçala, nekheac, eta travailluac icituric viciotsu eguinac:

halacoez erraiten du isquiribu Sainduac ere: *Statuet haedos a sinistris.* Matth. 25. Bitinac beçala direla halacoac, eta azqueneco egunean ezquerreco aldean Jaincoac eçarrico dituela; Bitina, edo ahuntzumea gazte deino, on da jateco, samur, uxter eta sasoal da; ordea guero, eta guero doha çailduz, gogortuz eta urrinduz: *Aetas ex haedo asperum facit hircum.* Plaut. lib. 1. epigram. Adinac bitinatic eguiten du Akher urrinduna.

Emaiten du aditcera Escritura Sainduac, bitinac beçala direla gaixtoac, eta azque-neco egunean, ezquerreco aldean, ibenico dituela Iaincoac. *Statues haedos a sinistris* (Mat. 25). Bitiña, ahuntz-umea, gazte deiño, on da iateco, samur da, uxter da, sasoal da: ordea galtcen du adinac. Guero eta guero doha, gaixtatuaz, çailduaz eta gogortuaz. *Aetas ex haedo asperum facit hircum* (Plaut. lib. 1 Epigram.). (*Gero*, 97 or.).

Hau bera guertatcen da hainitz haur gaztetan-ere, ttipi direino, maltso, manucor, eme, eta goço dira: baina ceren burasoec bere guticien eredura utci tuzten ibiltcera, eta bere nahicunden eguitera, adinarequin ethortcen dira muthiritcera, urguillutcera eta errebestera: halaco guisaz non hequien baithan ez baita causitcen vicioaren ur-thumeric baicen;

Halatan erraiten du Job guiçon Saindu harc: *Ossa ejus implebuntur vitijs adolescentiae ejus, et cum eo in pulvere dormient.* Job. 20. Halacoen heçurrac beteco dira gaztetasuneco vicioez, eta harequin batean lurrean-ere lo eguinen

Halatan erraiten du Job guiçon saindu harc: *Ossa ejus implebuntur vitijs adolescentiae ejus, et cum eo in pulvere dormient* (Job. 10). Gaixtoaren heçurrac betheco dira gazte demboraco beccatuez, eta harequin batean lurrean ere lohacartuco



dute, eztute behin-ere utcico. Ceren Gregorio Sainduac dioen beçala: *Tenent illum pravae consuetudines, quem semel ceperunt, atque quotidie duriores existunt, et cum eo in pulvere dormient, quia non nisi cum ejus vita finientur*. Greg. lib. 15. Moral. cap. 15. Usantça gaitçac eta aztura gaichtoac jarraiquitcen ohi dira heriotceraino, eta lurrean barrena, sar-artearaino, eztute hararaino uzten, eta ez comuntzqui han-ere.

*Habitus difficile mobilis a subjecto*: ceren haztura gaitz baita erremediatceco, hala nola baita hecticca, ceina (lehen erran dudan beçala) heldu baita berotasun languita bat, dembora lucez, eta appur bana emequi emequi heçurretan barrena sarthuz: hau da erhasun bat sendatceco gaitça eta içaitecotz-ere choil luçaro erremedioac galdeguiten tuena:

ceren Chrisostomo Sainduac dioen beçala: *Annosa passio medicamentum momentaneo non curator*. Chrisostom. 32. tom. 2. Arraçadura aspaldicoa edo narrio çaharquitua ezta pontu batetaco miricuntçaz eta behingo bisitaz erremediatcen, eta ez hain fite eta laster osasuna-ere leheneco estatura, eta içaitera bihurtcen;

eta hala haurreticcaco usantça eta haztura gaichtoa da vicio bat haguitz higuigarria; bataz ceren den hain gaitça erremediatceco, eta bertceaz,

ceren berequin baitacarque alferqueria vicio guztien aicindaria, eta iturria, eta ennorantciaren harmac, Chrisostomo Sainduac dioen beçala: *Omnium vitiorum, quasi magistra quaedam, atque origo otiositas*. Chrisostom. tom. 36. tom. 2. Ezta hunec iracasten eztuen gaichtaqueriaric, hau da vicio guztien ama, eta hatsapena:

eta Spiritu Sainduac-ere hargatic erraiten du Ecclesiasticoaren ahotic: *Multam malitiam docuit otiositas*. Eccles. 33. Hainitz malicia iraccatsi duela alferque-riac: ezta maliciaric, ez pentsamendu gaichtoric alferra baithan causi eztite-

dira, eztute behin ere utcico. Ceren San Gregorioc dioen beçala: *Tenent illum pravae consuetudines, quem semel ceperunt, atque quotidie duriores existunt, et cum eo in pulvere dormient quia non nisi cum eius vita finiuntur* (Greg. lib. 15 Moral. cap. 15). Usantçazco beccatuac iarraiquitcen ohi çaitça nehoi heriotceraiño, eta lurrean barrena sar arteiño, eztute hareraiño utzten, eta ez comuntzqui han ere. (*Gero*, 94 or.).

Ceren nola baita Hetica daritçan eritasun bat, cein eguiten baita, succarra dembora luceaz, eta appurbana heçurretan barrena sartceaz: eta eritasun harc ezpaitu erremedioric, miracuilluz edo baicen, eta içaitecotz ere choil luçaro: hala da dembora luceaz, gogoan, eta bihotzean barrena sarturic dagoen aztura gaixtoa ere. Hura da Hetica gaixto sarthua, atheratcen eta erremediatcen gaitça. (*Gero*, 94-95 or.).

Ceren San Chrisostomoc dioen beçala: *Annosa passio, medicamento momentaneo non curatur* (Chrys. 32. tom. 2). Arraçadura urthatua, narrio çahartua, çauri gaizcoatua, ezta pontu batetaco midicuntçaz sendatcen, ezta behingo visitaz erremediatcen, eta ez hain fite leheneco estantera, estatura eta egoitçara bihurtcen. (*Gero*, 93 or.).

*Omnium vitiorum quasi magistra quaedam atque origo otiositas*, (dio San Crisostomoc) (Chrysost. tom. 36. tom. 2) vicio guztien, eta pensu gaixto guztien cimendu, ithur-buru eta maestru beçala da alfertasuna. Ceren ithurritic ura beçala, alferque-riatic ere, sortcen baitira gaixtaqueriac. (*Gero*, 42 or.).

*Multam malitiam docuit otiositas*, dio Spiritu Sainduac (Eccles. 33). Anhitz malicia eracutsi içatu du alferque-riac. Ezta maliciaric eta ez pensu gaixtoric, presuna alferrean ediren eztitequeyenic. Asco da erraitea, alferra dela, hartçaz

quenic; Asco da erraitea alferra dela, hartaz edo cein-nahi gaichtaqueria sinets deçagun, dio Axular çuhurrac.

edo cein gaixtaqueriaren, sinhesteco. (*Gero*, 40 or.).

§16

Hau da poçoadura bat poçoin guztien poçoadurac chitcen, eta iragaiten tuena,

eta bere cutsu madaricatuaz hala gorputcetán, nola arimetan calte guehiago eraguiten duena; eta gentilec-ere handirozqui higuin içan dutena:

[...] etçuela deusec ere hanbat calte eguiten arimaco eta ez gorputzeco ere (*Gero*, 15 or.).

[...] lehenagoco Ientilec [...] ere condenatcen dute alferra (*Gero*, 37 or.).

Hargatic dio Plautoc: *Pestis est mortalibus ignavia*: de republ. Ezta içurriric, ez eta-ere poçoinic alferqueriác beçambat calte eguiten duenic.

*Pestis est mortalibus ignavia* (Plaut. de Republ.). Ezta içurriric eta ez poçoinic naguitasunac edo alferqueriác beçanbat calte eguiten duenic. (*Gero*, 41 or.).

Hau nausitcen dena baithan ezta gauça onic, ceren halacoaren gorpputça usteldua, eta urrindua baita, eta arima hilla: *Otium sine litteris est vivi hominis sepultura*. Senec. epist. 28. Senecac erraiten du, letra gabeco vicitcea, eta jeusic eztaquienaren aisia dela guiçon viciaren hobia, eta thomba; halacoa hilaren, eta ehortciric dagoenaren pare baita: ceren alferqueriác alferra viciric dagoela eçartcen baitu ehortcia: ordea ahal dateque cureltasun bat borthitçagoa, eta icigarragoa, nola baita viciric dagoela ehortztea?

Presuna alferra educaçu galdutçat eta hiltçat. Eta handic erraiten du Senecac: *Otium sine litteris, est vivi hominis sepultura* (Senec. epis. 28). Letra gabeco aisia, deus eztaquienaren alferqueria, guiçon biciaren hobia da, eta sepultura. Ceren deus ez-taquiena, eta eguiten ere ez-tuena, presuna hillaren eta ehortciric datçanaren pare baita. (*Gero*, 42 or.).

hau da gauça bat den barbaroric salbayenac higuin duena, eta naturaleçaren legue guztien contracoa: choilqui erran diteque, hau dela alferqueriác bere haurrei, eta cerbitçarierei emaiten derauen, emaitça, huzkuja, edo primeça; nolaco nausia, halaco pagua.

§ 17

Huni darraico erromesqueria eta pobrecia, esquean ibiltcea, eta bai ohointçare. *Pigritia est nutrix egestatis*. Senec. lib. de benefic. Alferqueria da probeciaren unhidea, eta haz-ama, dio Senecac. Gauça bera dio halaber Izpiritu Sainduac-ere. *Omnis piger in egestate est*. Proverb. 21. Naguia bethi da behar, escas, eta erromes. Ceren escu lachoac, eta alferac probetasuna baitacarque: *Egestatem operata est manus remissa, manus autem fortium divitias parat*. Proverb. 10 Baina escu borthitçac, eta trabailariác aberastasunac biltcen tu. *Otiosus Esau amisit primatus beneditio-*

Handic heldu da probetasuna, erromesqueria, esquean ibiltcea eta bai ohoin içaitea ere. *Pigritia est nutrix egestatis*, dio Senecac (Senec. lib. de benefic.). Naguitasuna da necesitatearen eta probeciaren unhidea eta haz-ama. Eta erraiten du Spiritu Sainduac ere: *Omnis piger in egestate est* (Proverb. 2). Naguia bethi da behar, escas, eta errumes. (*Gero*, 42 or.).

*Egestatem operata est manus remissa, manus autem fortis divitias parat* dio Spiritu Sainduac (Proverb. 10), escu lachoac eta alferac, probetasun daccarque, baiña bortitzac eta trabailariác

*nem, quia maluit accipere, quam querere.* Ambros. epist. Ad Vercel. Esau alferrac galdu çuen bere lehentasuna, ceren nahiago içatu çuen hartu, ecen ez bilhatu.

aberatstasun viltcen du. *Otiosus Esau amisit primatus benedictionem, quia maluit accipere, quam quaerere,* dio San Ambrosioc (Ambros. epis. ad Vercel.). Esau alferrac galdu çuen bere lehentasuna, ceren nahiago içatu çuen hartu, ecen ez bilhatu. (*Gero*, 43 or.).

§18

Beraz Dotor Saindu hunen arroçoinaren eredura badirudi alferqueriac berequin dacarquen içurriaren contraco contra-poçoina, eta erhasun poçoatuen erremedioa dela bilhatcea, entsejatcea, eta traillaatcea,

ceren Autor berac dioen beçala : *Soli autem homini, ut rationale, quod accepit, exerceat, vitae cursus in labore praescribitur.* Ambros. in praefat. in Levit. Jaincoac guiçona alfer etcegoen amoreacgatic, eta errecibitu duen adimendua emplega deçan gatic, eman dio traillaatcea;

Eta San Ambrosioc, dioen beçala, errecibitu duen adimendua emplega deçan gatic. *Soli autem homini, ut rationale quod accepit exerceat, vitae cursus in labore praescribitur* (Ambros. in praefat. in Levit). (*Gero*, 25 or.).

Guiçonac bere nekhe icerdiz ardiesten du behar duen guztia, eta hura ezten lekhuana ezta dohacabetasunic baicic.

*In omni opere bono erit abundantia, ubi autem verba sunt plurima, ibi frequenter egestas.* Proverb. 14. Traillaillu onean içanen da franquia franco, baina hitz hainitz den lekhuana, maiz da escasia, eta probetasuna.

*In omni opere bono erit abundantia, ubi autem verba sunt plurima, ibi frequenter egestas* (Proverb. 14). Traillaillu onean içanen da franco eta franquia, baiña hitz anhitz den leccuan, maiz da probetasuna eta escasia. (*Gero*, 44 or.).

Job Sainduac harc ere dio : *Homo nascitur ad laborem, et avis ad volatum.* Iob. 5. Guiçona sortcen da traillailluco, eta hegastina aireco, eta hegaldatceco: hala nola bada naturaleçaren autorac hegastinari emaiten baitiotzça hegalac airatceco eta hegaldatceco, manera berean Guiçonariere Jaincoac eman diotça adimendua, vorondatea, eta memoriaa traillaatceco:

*Homo nascitur ad laborem et avis ad volatum* (dio Iobec) (Iob. 5). Guiçona sortcen da traillailluco, eta hegastina aireco. Nola hegastinari emaiten baitçaitça hegalac, airatceco, eta hegaldatceco: hala guiçonari ere emaiten çaitça escuac traillaatceco. (*Gero*, 34 or.).

Traillaillua da ceinaren bidez Guiçona eguiten baita merecimendutsu, hala Jaincoaren aitcinean, nola munduarenean. Erraiten ohi da: *Laboribus omnia Dij vendunt.*

§19

Eguia handi hau clarqui eracusten darocute munduco gauça guztieç, ceinec empletatcen baitute bere demboracertaco ere eguinac baitira, eta hartan:

Munduco gauça guztieç condenatcen dute alferra. Ceren hartçaz bertce guztieç, empletatcen baitute bere demboracertaco eguinac baitira hartan. (*Gero*, 34 or.).

guztiec baituzte bere empleguac, ceinec bere graduan, eta hartan demboraric galdu gabe empletacn dira, eta bere entsejuac eguiten tuzte,

hargatic erle (ezti eguiten) travaillatcen direnec, dio Plinioc, travaillatcen ezti- ren alferrac, eta naguia ezten colpeca egotzen tuzte bere cofaueataric, eta compainiatic: *Expellunt ab alvearibus pigras*. Plin.

Erleac [...] travaillatcen direnec, travaillatcen ezti- ren alferrac eta naguia, ezten colpez egotzen dituzten bere compainiatic. *Expellunt ab alvearibus pigras* (Plin.). (*Gero*, 35 or.).

Eta-hala Espiritu Sainduac igortcen gaitu animalia ttipitto batengana erraiten darocularican: *Vade ad formicam o piger, et considera vias ejus, et discite sapientiam, quae cum non habeat duces, nec praeceptorem parat in aestate cibum sibi*. (Prov. cap. 6. v. 6). Çoaz naguia chinhaurria gana, eta considera çatçu haren bideac, eta joan-ethorriac, eta iccusico duçu çuc-ere nola behar duçun aiticinerat ethorquicunean, eta bethiere bici, eta governatu, eracusleric, eta guidaric gabe berac bere buruz biltcen du udan neguaren iragaiteco behar duen mantenua, eta bazca.

Spiritu Sainduac berac igortcen gaitu animalia ttipitto hunengana, cer eguin behar dugun iccatera, erraiten duela: *Vade ad formicam, o piger, et considera vias ejus, et discite sapientiam quae cum non habeat duces, nec praeceptorem, parat in aestate cibum sibi* (Prover. 6). Çoaz, naguia, chinhaurria gana, eta consideraitçatçu haren bideac eta bidex- cac, ioan-ethorriac eta itçul-inguruac, nequeac eta travailluac, eta iccasico duçu çuc ere nola behar duçun aiticine- rat eta bethiere bici, ibili eta governatu. Harc eracusleric eta quidaric gabe, berac bere buruz viltcen du udan, neguaren iragaiteco behar duen mante- nua, bazca eta bihia. (*Gero*, 36 or.).

*Gloriam & honorem, imperiumque boni  
& ignavi sibi aequè exoptant.*  
Sall.

§ 20

Baldin Escual-herrico gazteac ongui har baleçate gogoan Espiritu Sainduaren abisu miragarri hau, eta ausnar eguin baleçate erlen eta chinaurrien exempluen gainean; daritçat, bere gaztetasuneco dembora ongui empletaturic, entseja litezquela aiticine- rat, ethorquicunean eta bethiere çahartasunaren dohatsuqui iragaiteco behar lituz- queten eguinbiden eguitera, eta bide hartaz esperantça nuque eguieran athera nentçaquetela; halatan behar da travaillatu, eta travailluaren bidez merecitu; ecen ikhus çaçü,

Gure Jainco Jaunac Adam lehenbico gure aita hura lureco parabisuan place- rez, eta atsegunez bethericcaco hartan eçarri çelarican, guziarequin-ere nola manatu çuen travailla cedila, eta begui- ra ceçala parabisu hura. *Posuit eum in Paradiso voluptatis, tu operaretur, et custodiret illum*. Genes. 2.

Gure Iaungoicoac [...] guicuna bera [...] ibeni çuen [...] lureco parabisuan, leccu placerez bethean. Eta manatu çuen lant ceçala, labora ceçala, eta beguira ongui parabisu hura. *Posuit eum in paradiso voluptatis, ut operaretur, et custodiret illum* (Genes. 2). (*Gero*, 21 or.).

§ 21

Ordea erranen duçu : Aita Adamec çuenaz gueroztican behar çuen guztia, cergatic, edo certaco travaillatuco centz? ceren Philosophoen arteco errefina baita: *Entia non sunt multiplicanda sine necessitate*. Gauçac eztira multçutu, eta berretu behar men-goaric, eta premiariç gabe, eta hala badirudi jeusen behar etcenaz gueroz, bacego-quela gueldiric?

§ 22

Arroçoin hunen gainean Chrisostomo Sainduac ihardesten du ederqui: *Nihil boni facere hoc ipsum est malum facere*. Chrisost. tom. 16. tom. 2. Onguiric ez eguitea bera da gaizqui eguitea; asqui da alfer içaitea gaizquin içaiteco, Catonec dioen beçala: *Homines nihil agendo, male agere discunt*. Ez jeus eguiteaz beraz ikhasten da gaizqui eguiten. Ceren, *otiositas est mater nugarum, noverca virtutem*. Bernard. lib. de consideratione. cap. 11. Alfertasuna baita aztura gaichtoen ama, eta verthuten ugaz-ama, halatan vicio suerte guztieç laster-eguiten dute haren gaueriçara, ceren ama baitute, baina verhuteac, eta obra onec ihes, ceren baitaquite eztu-quetela harenganic beguitarteric, eta ez ongui ethorriric.

Ceren San Chrisostomoc dioen beçala: *Nihil boni facere, hoc ipsum est malum facere* (Chrysos. tom. 16. tom. 2). Onguiric ez eguitea, bera, da gaizqui eguitea. Eta Catonen errana da. *Homines nihil agendo, male agere discunt*. Ez deus eguiteaz beraz iccasten da gaizqui eguiten. *Otiositas est mater nugarum, noverca virtutum* (Bernard. lib. de considera. cap. 11). Alfertasuna da erguelquerien ama, eta verthutèn ugaz ama. Eta halatan erguelquerieç, erhoquerieç eta vicio suerte guztieç eguiten dute laster alfertasunera, ceren ama baitute; baiña verthutèc eta obra onèc, ihes. Ceren nola baitute ugaçama, baitaquite, eztuquetela harenganic, beguitarteric, eta ez ongui ethorriric. (*Gero*, 39 or.).

Halatan beraz bat-bedera da obligatu nahiz ttipia, nahiz handia; nahiz probea, nahiz aberatsa nekhearen eta travailluaren onhestera, eta besarcacera, bide hunetaz alferqueriaren latchio, eta segada guztiei ihes eguiteco; eta bereciqui haur gazteac; ceinac emplegu gabez, eta travaillatu faltaz, errazquiago ethortcen baitira alferqueriaren lausengu higuin eta itchurapenezcoetan erortcera, eta handic viciotsu, eta guiçon gaichto eguitera: ceren alferqueriac bere bazca gaztetasunean causitcen baitu, han hazten, gurentcen, eta bazcatcen da, hala-nola suaren bazca baita olioia, manera berean alferqueriarena da gaztetasuna.

Hargatic, Lacedemoniarrec irabaci çutenean bere frontieraco hiri etsai, eta mugaquide bat, erran çuten Lacedemoniaco aitcinguidarieç: *Sublata est pubis nostrae palestra, non habebunt post hoc, quibus cum luctentur adversarios*. Plutar. in Aphontem. Eguin da gure gende gazteaz, hemendic harat eztute içanen iharduquitceco paradaric, eta-ez gathazcatceco etsairic-ere.

Irabaci çutenean Lacedemoniacoec bere frontieraco hiri etsai bat, muga-quide çuten bat, erran çuten Lacedemonia hartaco bereco governarieç: *Sublata est pubis nostrae palestra, non habebunt post hac, quibus cum luctentur adversarios* (Plutarc. in Aphohte.). Eguin da gure iende gazteaz, eztute hemendic aicina iharduquitceco paradaric içanen eta ez borrocatceco etsairic. (*Gero*, 29 or.).

## § 23

Ordea Lacedemoniar hec berec, etçuten deseguin nahi içatu bertce hiri contrast bat bethiere bere contra, eta etsai içan çutena, erraiten çutelarican, hiri hura cela: *Iuventutis cotem*. Gazteriaren çorrotz-harria; ceren gaztec han bere indarrac, eta antcea frogatcen, çorroztent, eta alferqueriaren herdoilletic beguiratcen baitçuten bere burua. Hunen arauaz ihardetsi çuen Cleomeres Sparciaco harc ere, galdeguin ciotenean, ea cergatic hala bere meneraz guero etcituen bere etsai Argiboac deseguin? dio: *Ut habeamus, qui iuventutem nostram exerceat*. Eztitut deseguin, dugun amoreac gatic norc gure gende gaztea certaco den froga deçan.

Lacedemoniaco hec berèc etçuten deseguin nahi içatu hiri contrast bat, bethiere bere contra eta etsai içan çuten bat, erraiten çutela, ecen, hiri hura cela, *Iuventutis cotem*: gaztetasunaren zorrotz-harria, ceren gaztèc han bere indarra eta antcea frogatcen, zorrotzten eta herdoilctic, beguiratcen baitçuten (Plutar. ibidem.).

Hunen arauaz ihardetsi çuen Cleomenes Sparciaco harc ere, galdeguin ceraucateanean, ea cergatic, hala bere meneraz guero, etcituen bere etsai Argiboac deseguin? *Ut habeamus qui iuventutem nostram exerceant* (Plutar. in Laco.). Eztitut deseguin, dugun amoreac gatic norc gure iende gaztea certaco den froga deçan. (*Gero*, 29 or.).

Hargatic bada nic-ere obra hau eguin nahi içatu dut; *Iuventutis cotem*: gure gazteriaren çorrotz-harritçat beçala: ustez ecen aguien hemen bere indarrac, eta antcea frogaturic hainitz fagore eta laguntça munduari emaiten diotçatela, eta egun batez bere traillaen pagua, eta errecompentsa errecibitcen duquetenean, niri-ere esquerac emanen darozquidatela.

[...]

## LABURPENA

Ziurrenik, ez dira izan grekerazko eta latinezko kultura eta letren harrera, presentzia eta transmisioarena Euskal Literaturaren alorrean gehien ikertu diren gaiak. Orobat, ez dirudi gure literaturaren ezaugarriek aski albokoak diren eta, itxuraz, auzokoen literaturetan antzeko emaitzak erakutsiko lituzketen kontuengatik interes berezirik piztuko dutenik etorkizun hurbilean.

Guztiarekin ere, XVII-XVIII. mendeetan barrena bizi izan zen Sarako Etxeberriren idazlanak garai hartako beste edozeinenak baino aproposagoak agertzen dira euskal gizataldeak mundu klasikoaz egin duen harrera eta transmisioa ikertzen hasteko. Letrazaletasun handikoa eta Axularren eta beronen obrak eta idaztankerak euskal literaturaren garapenari ekar diezaioketen guztiaren mireslea, Azkoitiko mediku bilakatu zen idazle lapurtar honek ez zuen argitaraturik ikusi bere obraren zatirik garrantzitsuena.

Honako artikulua honek agerian uzten du Etxeberriren "Escual-herrico gazteriarri" delakoak Axularren *Gero* liburuarekiko dituen zorrak eta, halaber, ohar-kizun zenbait eskaintzen ditu bertan islatzen den latinezko ekarpen klasikoaren azterketarako eta interpretaziorako. Autore bien testu-erkaketa bat erantsen da.

## RESUMEN

No han sido probablemente la recepción, presencia y transmisión de la cultura y letras greco-latinas uno de los temas que más se hayan investigado en el ámbito de la Literatura Vasca. Tampoco parece que las características pro-

pías de nuestra literatura vayan a propiciar en un futuro próximo el interés por cuestiones que, en todo caso, no dejan de ser un tanto colaterales y cuyos resultados, previsiblemente, no han de resultar en exceso divergentes de los que se dan en las literaturas vecinas.

No obstante, es quizá la obra de Etxeberri de Sara (XVII-XVIII) la que, más que ninguna de su tiempo, se presta a la tentación de ser estudiada bajo el prisma de la "recepción-transmisión" del mundo clásico. Gran estudioso de las letras, entusiasta admirador de Axular y de cuanto el magno escritor suponía para el desarrollo de la literatura en euskara, el médico labortano asentado en Azkoitia jamás llegó a ver publicado el grueso de sus esfuerzos.

El presente artículo ofrece una serie de observaciones acerca del enfoque que requiere el estudio de la aportación clásica latina en el escrito que Etxeberri dirigió a la juventud vasca ("Escual-herrico gazteriar") y la interpretación que de él se deriva a la luz de sus débitos para con el *Gero* de Axular. Se incluye un anexo con la comparación de textos de ambos autores.

### RÉSUMÉ

La réception, présence et transmission de la culture et des lettres gréco-latines n'ont probablement pas été l'un des thèmes qui ont provoqué le plus de recherche dans le cadre de la littérature basque. Il ne semblerait pas non plus que les caractéristiques propres à notre littérature proportionnent dans un avenir proche l'intérêt pour des questions qui, dans tous les cas, ne cessent d'être plutôt collatérales et dont les réponses ne devraient certainement pas excessivement diverger de celles qui ont été données dans les littératures voisines.

Cependant, c'est peut-être l'œuvre d'Etxeberri de Sara (XVII-XVIII) qui, plus que toute autre en son temps, se prête à la tentation d'être étudiée sous le prisme de la "réception-transmission" du monde classique. Grand spécialiste des lettres, admirateur enthousiaste d'Axular et de tout ce que le grand écrivain supposait pour le développement de la littérature en euskara, le médecin du Labour installé à Azkoitia ne réussit jamais à voir la somme de ses efforts publiée.

Le présent article offre une série d'observations au sujet du point de vue que requiert l'étude de l'apport classique latin dans le texte qu'Etxeberri dirigea à la jeunesse basque ("Escual-herrico gazteriar") et l'interprétation qui en dérive à la lumière de ses devoirs envers le *Gero* d'Axular. Une annexe est incluse, contenant la comparaison de textes des deux auteurs.

### ABSTRACT

The reception, presence and transmission of Greek-Latin culture and literature is almost definitively not one of the most researched areas of Basque Literature. Nor would it appear that the specific features of our literature are set to stir up any interest in matters which, in the end, are no more than collateral and whose results, one might imagine, would not be too different from those arrived at in studies concerning neighbouring literature.

More than that of any of his contemporaries, perhaps the work of Etxeberri de Sara (XVII-XVIII) best lends itself to study within the framework of "reception-transmission" of the classical world. A great scholar of literature, a keen admirer of Axular and all that this outstanding writer meant to the development of Basque literature, this doctor from Lapurdi and resident in Azkoitia, did not live to see much of his work in print.

The present article offers a set of comments regarding the approach required in order to study the classical Latin contribution to the texts that Etxeberri wrote for the Basque youth ("Escual-herrico gazteriar") and the consequent interpretation arrived at in the light of the author's debt to Axular's *Gero*. The appendix includes a comparison of the texts by the two authors.